

EAEko parroketako artxiboak digitalizatu eta Interneten jarri ditu Eusko Jaurlaritzak

Jardunaldiak egingo dituzte Bilbon bihar eta etzi, datu base horien erabiltzaileen ekarpenak jasotzeko

IRUNE BERRO
Bilbo

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako parroketako dokumentuak indexatu eta digitalizatu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, hiru herrialdeetako elizbarrutiek abian jarritako egitasmoaren bidez. Zehatz-mehatz, XV. mendetik XX. mendera arteko dokumentuak bildu ditu; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herri-tarren bataio, ezkontza eta heriotza errolda liburuak: hots, 3,5 milioi pertsonaren datuak jasotzen dituzten dokumentuak. Eta horiek guztiak Irargi Euskadiko Kultur Ondare Zentroaren *Badator* izeneko datu base digitalean jarri ditu, nahi duen orok kontsultatzen.

EAEko parroketako artxiboak digitalizatzeko egitasmoa Kulturaren Euskal Planaren (KEP) barruan garatzen ari da Kultura Saila. 2000. urtean jarri zuen martxan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elizbarrutiek. Eta hiru fase-tan ari da egiten. 2000. urtetik 2001. urtera egin beharreko lanaren nondik norakoak definitu ondoren, 2002. eta 2003. urteen artean, egitasmoa martxan jarri zuten Irargiko arduradunek eta elizbarrutietako teknikariek. 2004an ekin zioten egitasmoaren azken faseari.

Ordutik hona, XV. mendetik XX. mendera arteko hainbat agiri digitalizatu dituzte, eta *Badator* datu basean nahiz elizbarrutiek egitasmorako espresuki sortutako



Edonoren eskura egongo dira artxibo digitalizatuak. CAIZKA/ROZ

webguneetan jarri dituzte. Miren Azkarate Kultura sailburuak jakinarazi duenez, aurki bukatuko dute lana. 2008an, hain zuzen. Eta ordurako zortzi milioi pertsonen inguruko dokumentuak kontsultatu ahal izango dira Interneten.

ERREGISTRO ZIBILA SORTU ARTE. Azkarateren esanetan, «ondare horrek

balio handia du, 1870ean Erregistro Zibila sortu zuten arte, bataio liburuak baitira dauden errolda zehatz bakarrak».

Parrokietan bildutako ondare dokumentala digitalizatzeko eta herri-tarren eskura jartzeko egitasmoa bukatzeaz dagoela, ikertzaileen, artxibozainen eta oro har herri-tarren proposamen eta ekarpenak

■ EGITARAUA

Bihar

■ **11:15.** Egitasmoaren aurkezpena. Hizlariak: F. Borja Aginagalde (Irargiko kidea), Anabella Barroso (Bizkaiko Elizaren Artxiboko zuzendaria), Jose Angel Garro (Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoko zuzendaria), Maria Dolores Lekuona (Gasteizko Elizbarrutiko Artxiboko zuzendaria).

■ **12:15.** Mahai-ingurua: Zer iritzi dute profesionalak? Anabella Barroso, Antonia Heredia (artxibozaina), Julio Cerda (Argandako Udal Artxiboa), Pedro Penteado (Portugalgo Unibertsitate Katolikoko Artxiboko zuzendaria), Christine Martinez (Frantziako Artxiboen Zuzendaritzako kidea).

■ **17:00.** Mahai-ingurua: Erabiltzaileek zer espero dute egitasmo honetatik? F. Borja Aginagalde (Irargi) eta Roberto Mendiguren, Fermin Olaskoaga eta Juan Vidal-Abarca erabiltzaileak.

Etzi

■ **10:00.** Mahai-ingurua: Eta aurrerantzean zer? Etorkizuneko aukerak. Roberto Gomez de la Iglesia (Xabide), Javier Garduño (Suspergintza elkarte), Esteban Goti (Deustuko Unibertsitatea), Sonia Crespo (Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea) eta Aurkene Alzua (Deustuko Unibertsitatea).

13:00. Ondorioen aurkezpena.

jaso nahi ditu Kultura Sailak. Hartarako, jardunaldiak antolatu ditu, *Artxiboak guztiontzat* goiburu hartuta. Mahai-inguruak eta eztabaidak egingo dituzte Bilboko Euskalduna jauregian bihar eta etzi. Saio horietan, sektoreko hainbat profesionalak eta erabiltzaileak parte hartuko dute.

EAEko dokumentuak: www.irargi.org.
Arabakoak: www.ahdv-geah.org.
Bizkaikoak: www.ahdb-beha.org.
Gipuzkoakoak: www.elizagipuzkoa.org/artxiboa.

Algara eroa

KRITIKA

MUSIKA
GOLDEN APPLE QUARTET

ARKAITZ MENDOZA

Algara bizian, inozokerie-tan maisu eta entzulea sorgintzen 21 urte luzetxo igaro dituzte lau donostiar hauek. Aurten Tolosako Abesbatzen Lehiaketa amaitzeko prestatutako ikuskizunean, seriozki planteatu nahi dituzte bizitzak dituen berrezko ardatzak: zoriona, maitasuna, ardura... baina betiere trakets, oro irri bihurtuz. Beren kanta eta moldaketekin batera, ideia ororen oinarri den gidoi zalapartatsua bikaintzat jo daiteke. Zabalak egingo dako lana etengabe sentitzen da emankor, hitz joko, kontu eta txiste pila sortuz.

Erritmo biziko erakustaldia da, ikuslea erne eta adi mantentzeko aproposa. Nahiz eta filmetako musikak imitatzen bizkor aritu, kanten kalitatea ezzen garbi landu, eta Manu baxuaren afinazio zirriborroak belarrietan burrunba egin zuen emanaldi osoan. Irria dute helburu nagusi, musika kontuak Loyola eta Eduren ahots finetan zabalduz. Opera abestian jendea barrez lehertzen aritu zen. Segidan, ingelesetik euskarara egingo itzulpen harrigarriak *Cotton Fields* kantan, ikuslearen zorame-na, eta ezin barre algara geldiarazi!

Musika mota pila lantzen dute saioan. Saioko erritmoa une askotan bizitu zuten eta aldi berean lasaitu. Beatles taldeari omenaldi txiki bat, eta amaieran tankera anitzeko abestiak bata bestearen jarraian, erritmo abiadura basatietan murgilduta. Zoriontzeko ekoizpen handiko emanaldi bero, bizkor, argi eta iskanbilatsua.

Lekua: Tolosako Leidor antzokia.
Eguna: Azaroaren 3a.



GOSE

taldearen kontzertua

Azaroak 9, ostirala **22.30h**

Sutegi kultur etxean

Noaua! Kultur hamabostaldia

sarrerak salgai Noaua! eta Usurbilgo Txirrista tabernan.
Bazkideek Noaua!ko egoitzan merkeago izango dituzte.


